

Altzaiko Herensugea

Xan Errotabehere-k kontatua

Ixoooo ! Entzun... Entzun ezazue Azalegiko bortuko isiltasuna. Duela guti arte, hemen belarra oparoa zen, ardiak bakean alatzten eta artzainak lasai bizi. Baina gaur, isiltasun hotz batek hartu ditu Zuberoako Ahüzkiko mendiak.

Ardi bat desagertu da, gero bi, gero bizpahiru, dozena bat ere. Bi zaldi eta hiruzpalau behi. Alta bada, ez da ere odol ttantta bat, ez da borroka herrestorik ere. Ez ebasketa zantzurik. Deus! Ha! Kabalak falta !! Artzain zaharrenak, adituenak, kezka gorrian daude. "Zer deabru gertatzen ari da mendi mazela honetan ?"

Halako sapa-egun batez, eguzkiak mailu baten gisa jotzen du Zuhurreko mendi-mazela, Azalegiren parrean den mendia. Eta handik... bi artzain begira daudenean... Hor bai izidura gorputzean sartu zaiela ! Leizearen ahotik suge luze bat jalgitzen ikusi dute. Munstro bat! Ez, Suge bat ! Kulebra luze bat, sigi-saga dator, bide bat bezain luzea, ezkatat estalia! Herensugea!! (Gure arbasoek aipatzen zuten delako herensugea!) Burua Aphurako errekan sartu du egarria asetzeko, buztana oraino zalapartaka, harpeko ilunbean duelarik. Haren neurria ? Bederen lau harri-ukaldiren heinekoa. Eta hatsa hartzen duenean... sua botatzeaz gain, bere ibilbidean aurkitzen dituen animaliak oro irensten ditu. Osorik... Bizirik hurrupatzen...

Zuberoako herrialdean, nehor, nehor ez da gai holako munstro madarikatuari buru egiteko. Uda min-min honetan, beldur hotz bat sartu zaie herritarren artean. Baina, es etsi jende onak ! Itxaropenak badu izen bat : Musde Zaro deitzen da, Athagi jauregiko semea, odol nobleko zalduna. Xibalié deitzen dute herrian. Ez dator otoitzekin, ez ele hutsekin. Badu jakintza, badu kuraia, baditu armak. Armadan soldadu izana da.

Altzai herrian, mezaren ondotik, Xibalié herritarrei ozen mintzatu zaie : «Altzaitarrak! Ni ez naiz saildu bat, soldadu soil bat baizik. Sugetzar hori hemendik alde bat kasatuko dizuet. Saiatuko naiz bederen. Ez dakit batailaren ondotik, hea, goizeko egun argia berriz ikusiko dudana. Baina nahiago dut herensugearen aitzinean zutik hil, beldurrez belauniko bizi baino! Emaidazue behi-larru oso bat! Emaidazue lastoa! Emaidazue metxa bat... Polbora, nik dut ekarriko!»

Aste bat berantago, goiz zohargi batez, Xibalié Harburuako gailurrera igan da, leize goiheneko hegira. Bere zaldi zuriaren gainean, ekarri du behi-larruzko zaku handia, ongi josia, lastoz eta polboraz betea, metxa luze batekin.

Beherean, tenore honetan, leizeko iluntasunean, sugetzarra lo dago.

Zaldunak behi-larrua, soka luze baten puntan lotu eta maldan behera utzi du joaten punpaka ta jauzika ... harpearen ahorraino. Astiro, fusila hartu eta 'danba' ! Tiroak goizeko bakea urratu du.

Herensugea haserre, iratzarri, burua leizetik atera eta, larrua ikusi bezain laster, ahoa zabalduz, irentsi du ! Leher eta zapart ! Bat batean, errainak eta hertzeak sutan, herensugea su-zuzi bizi bihurtu da! Hegalez dator mendian gora, bazterrak dardaran emanaz, ziztu izigarri batekin, Xibalié bere aldetik zaldiz lauhazka ihes doalarik.

Herensugeak Arangaitzeko lepoa zeharkatu duenean, ahotik zerua sutan ezarriz, buztan luzearekin pago-oihan gazte bat suntsitu du. Ithe eta Altzürükü aldera joan da, ura edo haize freskoa irentsi behar gorrian segur ere. Airez-aire, bere ihesaldi eroan, Baionako itsasoan murgildu da, sabeleko su-garra erabat itzaltzeko.

Jagoitik, Altzaiko herria libre da. Baina garaipen handiak araberako prezioa badu. Bi egun berantago, Athagiko jauregian, Xibalié zaldun ausartak ohean eman du azken hatsa. Diotenaz, odola ur bihurtu zitzaion, suzko sugea ikustek eman zion izidura ikaragarriaren gatik. Beldurrak hila, gizona, bai naski !... Baina heroi gisa hila, euskaldunak libratu.